

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### LURRALDEAREN ETA KLIMAREN ALDEKO EKINTZAREN SAILA

##### Jarduera sailkatuaren lizentzia eskatzea

Jarduera instalatzeko udal lizentzia eskatu dute ondoren adierazten diren pertsonak, azaltzen diren lekuetarako:

Dosier-zenbakia: 2021/LACACT00023.

Eskatzailea: B02913903.

Jarduera: gasolina-zerbitzugunea osoa, otordu-zerbitzurik gabe.

Kokalekua: Jauregilanda kalea, 12 B.

Horrenbestez, Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko 3/1998 Legearen 58. artikuluan xedatutakoaren ildotik, jendaurrean jartzeko epea zabaltzen da, jarduera horiek nola edo hala eragiten dietela uste dutenek horiei buruzko dosierak aztertzerik izan dezaten —Lurraldearen eta Klimaren aldeko Ekintzaren Saileko Administrazio Zerbitzuan (Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25 behe), jendaurreko orduetan—, eta egokitzen jotzen dituzten alegazioak egin, hamabost eguneko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu ondorengo lehenengo lanegunetik.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko urriaren 25ean

*Lurraldearen eta Klimaren aldeko Ekintzaren administrazio-burua*  
**EUSEBIO-MARTÍN MACHO PÉREZ**